



PONYO

ITSAS LABARREAN

Hayao Miyazaki, Japon, 2008.



Argitalpena: IRUDI BIZIAK



Programa
honen
ideia
eta garapena
Irudi Biziak®- enak
dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZineuskARA

G I Z A R T E A N

LH

Ikasleak

2025 - 2026



Filmaren inguruan


- **SINOPSISIA** hankaz gora dago. GUZTION ARTEAN bere baitan jarri ezazue:

- ☐ Hala ere, arrainaren aitzak, garai batean gizaki izan zen aztiak, berarekin itsasora itzultzera behartuko du.
- ☐ Sosukek askatzen lagunduko dio eta elkarren arteko lilura sortuko da.
- ☐ Goiz batean, burua marmeladazko pote batean sartuta duen koloretako arrain batekin egingo du topo.
- ☐ Sosuke itsasora begira dagoen labar batean bizi den mutiko alaia da.

- **PERTSONAIAK: OSATU** hurrengo gurutzegrama, pertsonaien izenak gogoratzeko!


BERTIKALAK:

1. Lisa amarekin bizi den bost urteko mutikoa. Ponyo aurkitzen eta zaintzen duen mutiko bihotz onekoa.
2. Itsasoan denbora luzea ematen duen itsasontziko kapitaina da.
3. Ponyoren aita, ez du nahi Ponyo gizaki bihurtzea, gizakiak gorroto baititu.
4. Ponyoren ama. Botere paregabeko itsas jainkosa, egoera baretzen eta itsasora bakea itzultzen jakingo du...



HORIZONTALAK:

5. Fujimotoen alaba den printzesa arrain bat da. Naturala, hiperaktiboa, magikoa, dibertigarria...
6. Emakume indartsua eta independentea da, zaharren egoitza batean lan egiten duena.
7. Lisak lan egiten duen egoitzan bizi dira. Bizitzaren jakituria eta esperientzia iruditzen dute.



- TALDE TXIKIETAN. Bakoitzak gehien gustatu zaizuen pertsonaia **AUKERATU** eta taldeari zergatik aukeratu duzuen azaldu.

Niri Ponyo den bezalakoa gustatzen zait... Arrain, gizaki edo nahasketa izan

- Hurrengo galderak GUZION ARTEAN **ERANTZUN**:

1. Zuen ustez, Sosuke eta Ponyo lagunak dira? Zergatik?
2. Zeintzuk dira, zuen ustez, lagun baten ezaugarriak?
3. Lagunak izatea garrantzitsua da? Zergatik?
4. Zergatik uzten du Sosukek berriz Ponyo uretan, amak eskatzen dionean?
5. Batzuetan lagunak joaten uztea edo lasai uztea garrantzitsua al da? Zein egoeratan?
6. Sosukek eta Ponyok elkarri laguntzen al diote? Gogoratu filmean laguntza hori ikus daitezkeen uneak.
7. Noiz uste duzue elkar lagundu behar dutela lagunak? Bizpahiru egoera esan.
8. Zer egin behar dugu, lagun batekin arazoak ditugunean?

- TALDE HANDIAN jarraituz, izenburuko esaldia aztertuko dugu: "Niri Ponyo den bezalakoa gustatzen zait, arrain, gizaki edo nahasketa izan."

1. Lagunak diren bezala onartu behar ditugu, Sosukek Ponyo onartzen duen bezala? Zer esan nahi du honek?
2. Lagunak izateko, gure izateko modua aldatu behar dugu? Zergatik?

- Amaitzeko, BAKARKA, lagun batean **PENTSATU** (eskolakoa, auzokoa, kirol taldekoka, herrikoa...).


- Zuretzat zergatik berezia den azaltzen duen gutun bat edo marrazki bat **EGIN** eta ahal duzunean emaiazu.



Hau nazka, bai ur zikinak

- GUZTION ARTEAN, berriro ere. Hurrengo esaldiak **EGIA ALA GEZURRA** diren erabaki eta erantzunak arrazoitu:

- ☐ Fujimotok, Ponyoren aita, gizakiak maite ditu.
- ☐ Fujimotok gizakiak gorroto ditu, itsasoa eta natura zikintzen dutelako.
- ☐ Itsasoan ikusten dugun zaborra, naturak sortzen duen zaborra da.
- ☐ Guk ezin dugu ezer egin itsasoa garbi mantentzeko.
- ☐ Itsasoa zaintzea garrantzitsua da.
- ☐ Fujimotok Ponyo berriz itsasora eramaten du, asko maite duelako.
- ☐ Arrain asko daudenez, nahi dugun guztia arrantzatu dezakegu.
- ☐ Itsasoa ez zaintzeak, ez ditu inolako ondoriorik.



- TALDE HANDIAN jarraituz, hurrengo estekan aurkituko duzuen Pirritx, Porrotx eta Marimototxen **"Plastiker"** abestiaren **BIDEOKLIPA IKUSTERA** gonbidatzen zaituztegu: <https://www.youtube.com/watch?v=DBbyo4VRuh8>

- Lehengo bideoklipa **KOMENTATU**: zer iruditu zaizue, zer nolako sentsazioak sentiarazi dizkizue, gustatu zaizue... Ondoren, hurrengo galderen inguruan **HAUSNARTU**:

- Ezagutzen duzue plastikozko kontinentea? Hari buruz informazioa bilatzen saiatu.
- Zer pentsatzen duzue kontinente horri buruz?
- Plastikoak dira itsasoarentzako dauden arrisku bakarrak? Izendatu burura etortzen zaizkizuen arrisku gehiago.
- Inoiz hondartzan zaudetenean plastikoak edo zaborra aurkitu duzue, hondarrean edo itsasoan? Nola sentitu zarete?
- Badakizue zer gertatzen den itsasoan amaitzen duen plastiklo guzti horrekin? Saiatu zaitezte ikerketa txiki bat egiten.
- Zer egin dezakegu guk, itsasoaren kutsadura gutxiago izan dadin laguntzeko? Zerrenda bat egin.

- Gai honekin jarraituz, gure inguruan egiten den lana ezagutzeko, Mater itsasontzi museoa ezagutzera animatzen zaituztegu irakaslearen laguntzarekin: <https://mater.eus/eu/mater/>

Zu ez kezkatu txiki, nik zainduko zaitut

- TALDE TXIKIETAN. Hurrengo taulan, gure hiru protagonista nagusiek, zuen ustez, filmean burutzen dituzten **"ekintza onak"** **ZERRENDATU**. Amaitzean **KLASEKIDE GUZTIEKIN KOMUNEAN JARRI** zuen zerrendak.

PONYO	SOSUKE	LISA

- Orain, **TALDE HANDIAN**. Hurrengo galderak **ERANTZUN** eta erantzunen inguruan **HAUSNARTU**:

1. Zer da ona izatea? Garrantzitsua da ona izatea?
2. Bakarrik ezagutzen dugun pertsonekin izan behar gara onak? Zergatik?
3. Zer onura dauzka gizartearentzat ekintza onak egitea? Eta ekintza onak egiten dutenentzat?

- BINAKA**, zuentzat persona on batek eduki behar dituen ezaugarrien **ZERRENDAT BAT EGIN**. Amaitzean, **GUZTION ARTEAN** komunean jarri eta zerrenda bateratu bat **EGIN**.

Euskara landuz

- Jarraian, janariarekin zerikusia duten hitz ezbrdinen definizio batzuk ikusiko dituzue. Hitz horiek **ASMATU** beharko dituzue **GUZTION ARTEAN**.

- A:** Ponyo gizakia izan baino lehen den animalia. Japonian gordinik jaten dute.
- B:** Indabak ere deitzen dira. Txuriak edo gorriak izan daitezke. Sakramentuekin jaten dira.
- D:** Lekadun txikitxoak, plater hegalaritxura duena. Burdin ugari duena.
- E:** Erleek loreetatik sortzen duten "gozokia".
- F:** Fruta jaten duen animaliaritxuraren esaten zaio.
- G:** Ogi egiteko erabiltzen den zereala.
- H:** Gure arrantzaleek maixuki arrantzatzen duten arraina. Gaztelan "polita" esaten diote.
- I:** Burmuina itxura duen fruitu lehorra. Euskadin gazta eta irasagar-gozokiarekin jaten da.
- J:** Filma herrialde honetan igarotzen da. Sushia, Ramena eta beste janari batzuen herrialdea.
- K:** Laranja koloreko barazkia. Gau beltzean arrakasta handia irabazi duena.
- L:** Lekale berde, luze eta xapala. Bere izena definizio honetan aurki dezakezue.
- M:** Fruta gozoa, txuriak eta gorriak daude. Urtezahar gauean kanpai hotsekin jaten duguna.
- N:** Barazkiak landatu eta zaintzean, gure mahaletara iristea ahalbidetzen duten pertsonak.
- O:** Arratsaldetan askotan jaten dugun askaria. Ogian zeozer sartzean egiten dugu.
- P:** Urtebetezeta kandelak eusteko erabiltzen dugun janari gozoa.
- R:** Japoniako zopa famatua. Osagai ugari ditu. "Naruto" pertsonaiaren plater gogokoena.
- S:** Berdea edo gorria izan daitekeen fruta. Euskal Herrian ugaria. Kanta baten protagonista.
- T:** Euskal Herrian tradizionala den arto gariarekin egindako ogi zapala.
- U:** Ponyoren janari gustokoena. Txerri hankarekin egin ohi da.
- X:** Janaria moztzeko modu bat. Haragiaren kasuan zuzenean horrela deitzen dugu.
- Z:** Frutuekin egiten dugun edari gozoa.

- AMAITZEKO:** Filmaren azken eszena erakusten duen marrazki hau **KOLOREZTATU**:

